


Madalen besperako salbia

Zazpirak jotzearekin batean, suziaren soñuak betetzen ditu gure Errenderi'ko bazter guztiak. Une ontantxe mutikoak, gizon gazte, gordiñ, zarrak eta errian diran guztiak nabaitzen duten poz eta alaitasuna ez da nolanaikoa izaten.

Nola ez ba? Madalen bezpera eta erriko pestaren asiera baida, eta urtean bein, errenderiarrak, naiz urruti izan, gogoz beintzat, egun ontan bertara iritxen diran erritar guziekin bat eginda gure "Centenario" eresi alaia entzuteko zaleturik.

Ara musikoak beren ikurriña aurrean dutelarik. Or di-joaz Kapitan-kaletik zear, urtero entzuten degun eresia joaz. Mutil koskorrak ere gertuak daude beren atzetik irtetzeko, txistulariak beren biribilketari asiera ematearekin batean. Or dijoaz korri eta korri, buruaundien maskullei iges egin naiean, aien kaskarrekoak ez artze arren. Olaxe dijoaz guztiak... buruaundiak, gizonaundi, soñu eta jendea, danak bat egiñik.

Eskoletako enparantza orain ustutzen dijoa. Jendea, kale batetik bestera, or dabil nun berriro ikusiko pestari asiera eman dioten antzeslariak, eta gu ere, oien tartean izan arren,



goazen gure Zaindariaren ermita aldera, an ere jaiaren asiera baida.

Bertara urreratzen goazela kanpaiaren otsa nabaitzen degu, errenderiarrei dei egiñaz. Eleiz barrura sartzen geraan, an ari dira erriko Apaiz jaunak egunari dagozkien bezperak abesten. Kanpoan berriz, umien zarata artean entzuten degu "Alkate Soñuaren" eresia txistulariak jotzen datozela; pixkana, pixkana agertzen dira erriko agintariak Eleiz barrura eta belaunikatu dira Madalen deunaren aurrean.

Aldarearen erdian or dago, beso zabalik, guztiak besarkatu naiean, gure Zaindari maitea. Bere zaindari-pean gauden guztiok, bere aurrean ikusi nai ginduzke, bañan, tamalez, ermitatxoa naiz aundia ez izan arren, ez da bear bezela betetzen.

Bertan, errex konta añekoak gaude. Izendatu ere egin ditezke, zeintzuk biltzen diran egun ontan; joan dan urtekoak... berririk gutxi... eta uts egin dutenak, gaixo edo zeru goitik begira dagozenak. Nun zagozte erritar maiteak, unetxo bat bada ere, zuen Zaindariari ez eskeintzeko? Guztiak gerade pesta zaleak, eta pestari asiera on bat ematea degu, gure Zaindariaren aurrean jarri eta esker-ona agertzea egiten dizkigun mesedeengatik.

Bezperak amaitu eta "Magnificat" abestu ondoren, Bikario jaunak eman dio asiera Salbiari. Korutik abeslariak erantzuten diote, urtero, urtero, "Agur Erregiña" otoitza abestuz, onela beren eskeintza Zaindariari egiñaz.

Eleiz erdi bete orretan, or daude Errenderiar zintzoak, beren Zaindariaren maitaleak, otoitz egiten. Beren senide, erritik urruti arkitzen diran erritar guztiegatik, eta batez ere, gure errian elkar maitasuna guztien artean beti nagusi izan dedin. Guk ere, or gauden ezkeroz, egin dezaiogun Madalen Done orri gure eskaria: eska dezaiogun, maitasun utsa izan zanari, bere maitasun ori zabaldu dezala gure artean, bereganako jaiera berezia izan dezagula guztiok, eta aurtendik aurrera asmo on bat artu dezagula: bere ermitatxoa, bere eleizatxoa betetzekoa, batez ere, pesta bezperan.

Arkitu dedilla guztiz jendez betea. Abesbatz baten eran, Salbiari asiera ematen zaionean, gure erantzuna izan dedilla abots sendo, bikaiñ, berdingabea. Gure abesti eder onekin, Madalen Doneari eskeintzarik maitekorrena egiñik.

Zu zera Madalen ori, gure gidari ta Zaindaria

Benetan izandu ziñan Jesukristo'ren maitalia

Beragaitik artu zenduen Zeruetako grazia

Ordu ezkeru beti daukazu zure bizitzan pakia.

Esku zabala zeradelako, entzun gure eskaria

Zeru goitik zaindu zazu maite zaituben erria

Zure maitasunaren antzekoa izan dedilla guria

Lagun urkoa maite izaten erakutsi guri biria.

OLASKOAGA